



Iris Gómez - Amaia García  
Aixerrota BHI, 15-16

## AURKIBIDEA

Fermin Etxegoen..... 2

Sarrera ..... 2

### *Urpekariak*

Kokapena ..... 3

Gaia ..... 3

Argumentua ..... 4

Istoria ..... 4

Pertsonaiak ..... 5

Egituraketa ..... 6

Baliabideak ..... 6

Iritzia ..... 9

Bibliografia - Webgrafia ..... 10

## Fermin Etxegoien

Fermin Etxegoien Uribetxeberria Oñatin jaio zen, 1966an, eta gaur egun Bilbon bizi da. Artikulugile, idazle, kazetari eta irrati esataria da eta, besteak beste, *Berria*, *Argia*, aldizkarietan eta Euskadi Gaztea eta Bilbo Hiria Irratia hedabideentzat lan egin du. Halaber, Zenbat Gara elkartekidea eta ETB1eko *Kalaka* saioko gidoilaria izan da.

2010eko Literaturako Euskadi Saria jaso zuen *Autokarabana* eleberriagatik.



## Sarrera

Etorkizunean (Kataluniak independentzia lortu duenean) kokaturiko mota guztietako maitasunezko istorio bat kontatzen digu eleberri honek, eta Katalunian girotutako familia zati baten zenbait bizipen aurkezten dizkigu. Kontaketan zehar, abentura, harreman desberdinak eta gazteen bizitzan ohikoak diren kontuak lantzen dira, batik bat.

Badira jatorri desberdineko pertsonaiak, itxura exotikoa dutenak, izaera isila edota indartsua dutenak... Batek gauza guztiz berri eta berarentzat zirrargarriak bizi ditu, beste batek nahaste samarra du bere buruan bi mutilekin izandakoagatik, hirugarrenak bere semearekiko estutasuna handitu nahi du eta bera babestu...

Esan bezala, istorioa Katalunia aldean gertatzen da, leku bat baino gehiago aipatzen diren arren (Bilbo, Holanda...); izan ere, L'Estartit herrian kokatzen da protagonistek oporretan disfrutatzen duten apartamentua, baina pertsonaien bizilekuak handik urrun daude.

# Urpekariak

## Kokapena

*Urpekariak* eleberria L'Estartiten parajeetan zehar eta Euskal Herritik Gironara arteko errepideetan kokatutako narrazioa dugu. Errepideko bidaian zehar Joxemik Jonani Moncayoko maldan gertatu zitzaiona kontatzen dio eta L'Estartiten narrazioaren argumentu guztia garatzen da. Gainera, han ama eta alaba holandar batzuk ezagutzen dituzte.

Eleberrian zehar esan beharra dago pertsonaiak ondo ezagutzeko aukera dagoela, ekarpen handirik egiten ez duten pertsonaia batzuk ere egon arren. Hala ere, denetarik topa dezakegu obra honetan, besteak beste: Gerard eta Chantal (buzeo txangoak prestatzen dituzte), Miren (Joxemiren emaztea) eta buzero instruktorea.



## Gaia

Obra honek lantzen dituen gai nagusiak maitasuna, abenturak, familiako arazoak... dira. Joxemik eta Jonanek L'Estartit herriko apartamentu batera oporretan joatean bizi dituzten gertakari desberdinak kontatzen ditu.

## Argumentua

Joxemik bere seme Jonan Kataluniara oporretan eramatea erabaki du, lagun batzuek apartamentu bat uzten diotela aprobetxatuz. Izan ere, bere emaztearengandik denbora batez deskantsatu behar duela ikusita urruntzea ikusten du egokien. L'Estartit izeneko herri batera heltzean, urpekaritza bataioa egitera abiatzen dira aita-semeak. Han, emakume bat eta bere alaba ezagutu eta gazteek harreman sentimental bat hasten dute. Hala ere, egun batzuk igaro eta neskaren mutil laguna zenak berarekin kontaktatzen du eta berak beste aukera bat emango diola pentsatzen du.

Honekin batera, semeak nabaritu egiten du aitak barruan daramana eta uste zuena baino gehiago miresten duela konturatzen da.

## Istoria

Joxemi eta Jonan L'Estartit herrira doaz oporretan, bidaiari zehar aita-semeek ez dute ia hitzik trukutzen; aita Moncayoko maldan gertatutakoa Jonani kontatzen saiatzen da, baina ez dago modurik. L'Estartitera heldu bezain laster, Joxemi buzero txangoak saltzen dituzten turismo bulego batera sartzen da eta Meda uharteetara urpekaritza bataioa egitera joatea erabakitzen du.

Hurrengo egunean, Meda uharteetarako bidaiari egiten dute eta han ama eta alaba, Luus eta Dael, holandar batzuekin topo egiten dute, baita bulegoko Chantal eta Gerardekin; kapitaina denarekin. Bataioa egin ondoren, Jonan eta Joxemi Dael eta Luusekin elkartzen dira afaltzeko. Afarian, hizketa oso entretenigarria bihurtzen da eta denak gustura daudela ikus daiteke.

Gau batean, Jonan eta Dael hondartzara doaz paseo bat ematera eta han musukatzen bukatzen dute gaua. Jonanentzako esperientzia ezin hobea da. Egunak pasatu ahala, aitaren eta semearen arteko harremana hobetu egiten da eta baita Luus eta Joxemi eta Dael eta Jonanen arteko erlazioak ere. Baina, egun batetik aurrera, Daelek Jonani geratzeko deitzeari uzten dio eta Jonan

kezkatzen hasten da. Horregatik, Luusek erabakitzen du Joxemirekin geratzea euren semei buruzko gertaerak argitzeko eta giroa konpondu ahal izateko. Dena lasaitzen denean, Daelek bere mutilaguna izan zenarekin bueltatu nahi duela azaltzen dio Jonani eta bakoitza bere etxera bueltatzen da.

## **Pertsonaiak**

Bi protagonista argi egon arren, beraien lagun batzuk ere garrantzitsuak dira istorioan. Hala ere, joko askorik ematen ez dutenak ere badaude.

Garrantzitsuenak, Joxemi eta Jonan dira eta bigarren plano batean Dael eta Luus ageri dira.

### **Jonan**

Hamabost urteko nerabea da eta braketsak ditu. Oporraldi hauetan aitarekiko harremana hobetzen du eta bere aitaren balore ugari ikusteko aukera izaten du. Maitemindu ere egiten da, eta esperientzia berri asko ere bizi ditu.

### **Joxemi**

Narrazioko aita da. Emaztearekin arazoak ditu, birritan banatu dira eta oraingoan deskantsatzeko aldendu dira denboraldi batez. Semearekiko duen harremana hobetzen saiatzen da, eta lortu ere. Gainera, bere eskuzabaltasuna erakusten du eta beldurtia dela argi geratzen da.

### **Dael**

Neskatila beltz kaskamotza, Bartzelonan jaioa. Irribarre garbia marrazten zaio aurpegian Jonani begiratzean. Hamabost urte inguruko neska da eta oso neska alaia eta jatorra izan arren, narrazioko zati batzuetan protagonista gaztearekin ez da oso ondo portatzen.

## Luus

Holandan jaioa eta buzeatzen aritua omen da. Bihotz onekoa da, Joxemi nahiko ez ezagutu arren bere eskuetan dagoena egiten baitu gizonari irribarre bat ateratzeko. Alaba ondo zaindu eta gainerakoekin ona da ere.

## Egituraketa

Narrazioa lineala da eta zentzu horretan ez du arazorik ematen gertaeren kronologiari begira.

Eleberria hamabi kapitulutan dago antolatuta; lehenengo eta bigarren kapituluek errepideko bidaia kontatzen digute eta beste guztiek L'Estartiteko gertakizunak garatzen dituzte. 151 orrialde ditu liburuak.

## Baliabideak

Eleberria bi zatitan bana daiteke; alde batetik, errepideko bidaia, eta bestetik, L'Estartiten gertaturikoa. Errepideko bidaiari, aita eta semearen arteko harremana ez dirudi oso ona denik eta ia ez diote elkarri hitzik trukutzen. L'Estartiten, aldiz, euren arteko harremana hobetuz doa han ezagutzen dituzten ama eta alaba holandarren laguntzaz. Gainera, Jonanek erabat aldatzen du bere ikuspegia.

Narratzailea orojakilea da; pertsonaiek pentsatzen eta sentitzen dutena momentu bakoitzean daki. Pertsonaia bakoitzak elkarrizketaren bat hastean gidoiak agertzen dira. Hirugarren pertsonan idatzita dago, kanpotik begira dagoen norbait balitz bezala kontatzen zaigulako istorioa, barruko kontuak jakin arren:

*Gainera, momentu hartan bere barrua husteko gogoa sentitzen zuen Joxemik. (86)*

Eleberrian erritmo arineko gertakizunak, elkarrizketa biziak eta sentimendu oso sakonak ikus ditzakegu. Gainera, egiten dituen pertsonaia oso landuak dira, baita deskribapenak ere:

*Kataluniara zihoazen, astebete pasa, opor konpartituak uztailean, haize egokitua derrigor konektatu behar Tuteratik aurrera, ezkerraldean basamortua, Bardea, eta eskuinaldean menditzarra, Moncayo, hogeita bost urte lehenagoko apiril batean aitak bere burua gogoratzen du eskien gainean eta Bardeako basamortuari begira, Moncayotik jaisten, mendian bakarrik. (5)*

Metaforak erabiltzen ditu kontaketa zehar, esaterako:

*Etorkizun likidoa, igerilekuko urak nola. (151)*

## Iritzia

Lehenik eta behin, *Urpekariak* eleberriaren argitalpenari begira, irakurritakoa lehenengo eta bakarra dela ikus daiteke. Egia da publiko nahiko konkretuari zuzenduta dagoela; izan ere, jorratzen dituen gaiak gazteentzako soilik izan ohi dira interesgarriak, eta honek arrakasta lortzeko aukerak nahiko murrizten ditu. Hala ere, kontuan izatekoa da zera ere, obra nahiko berria dela.

Liburuaren tapa biguna izanik, tolestu eta era honetan edozein lekutara eraman daiteke, poltsa edo motxila baten barruan, azken hau txikia izan arren. Portadari so, onartu beharra dago ez dela bereziki erakargarria, baina bertan buzeatzen ari diren bi pertsona ageri dira, istorioaren izaera nolabait aurreratzen duena eta, izenburuarekin batera, nolabaiteko sarrera egiten diguna, istorioa nolakoa eta zeri buruzkoa izango den erakutsiz.

Esan bezala, argi dago idazlea irakurle gazteekin konektatzen saiatu dela, eta bai lortu ere, pertsonaia batekin edo bestearekin identifikatuta sentiarazi baitigu. Horregatik dira azpimarragarriak pertsonaia hauek. Ez dira beste obra batzuetan aurkitzen direnen modukoak –aurrekoetan pertsonaia nahiko originalak aurkitu baitaitezke–. Oraingoan, ordea, normalean gure inguruan aurki ditzakegun pertsonak bezalakoak direnak izan dira nagusi. Idazleak errealista izatea erabaki du, irakurlearekiko hurbiltasuna lortzeko.



Honek irakurlearen kontzentrazioa eleberri osoan zehar mantentzea lortzen du.

Azkenik, egitura ere lagun izan du kontaketak; izan ere, era linealean kontatuta egoteak erraztu egiten du ulermena eta, ondorioz, irakurketa ere. Gainera, zenbait pasarte esanguratsurekin erakargarriagoa egiten du istorioa, esaterako:

*Ondo al zegoen bere aita?*

*Hobeto galdetuta: ez al zegoen ondo bere aita?*

*(...)*

*..lokartuaren aurpegiko espresioan, halako egia sakon bat bezala, aitaren, bere aitaren atsekabe serenoaren berri ematen ziona, norberak ez baitauka, lo gaudela, mundura zabaltzen duen espresioa kontrolatzerik...eta esan bezala aitarenean Jonanek antzematen zuen atsekabetasun zehaztugabe bat, nahiz eta soseguz gobernatua bezala, aita batengandik espero zitekeen gauzarik onena, atsekabetasuna soseguz gobernatzea... (118)*

## Bibliografia eta Webgrafia

- *Urpekariak*, Fermin Etxegoien. Erein.
- <http://atalak.eus/ikaskela-materialak/nola-egiten-da/eleberri-lana/index.html>
- <http://www.donostia.org/euskara/entziklopedia.nsf>
- [http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt\\_el/index.asp](http://www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt_el/index.asp)
- [Xuxen.eus](http://Xuxen.eus)
- <http://atalak.eus/ikaskela-materialak/il-hiztegitxoak/eleberriak-bilduma/urpekariak/urpekariak.pdf>